

**Kas Deprez eta Armel Wynantsekin elkar hizketa**

## **"Brusselako flandriarrak mendebaldeko hizkuntz gutxiengorik babestuena dira"**

*Zenbaki honetan bi soziolinguista flandriar elkarrizketatu dugu, Euskal Herriaren aspaldiko lagunak biak: Kas Deprez soziolinguistika irakaslea da Amberes eta Lovaniako unibertsitateetan, eta Armel Wynants Liejako Unibertsitateko irakaslea eta Voeren-Fouronseko hizkuntz komisaria da. Belgikako zenbait hizkuntz arazo aztertu dugu beraiekin: hizkuntza flandriarraren, hots, nederlanderaren normalkuntza prozesua, biztanlegoaren jarrerak, lurraldetasun eta elebitasun planteamenduak, zentsuak, hizkuntz mugak, hiriburuaren estatus berezia, lan munduko egoera legala, Belgikako Konstituzioaren aldaketak, irakaskuntzaren bilakaera, etabar; gai interesgarriak benetan gure hizkuntz berreskurapen prozesurako. Irakurleak Belgikari buruzko informazio gehiago BAT Soziolinguistika Aldizkari honen 2. zenbakian aurki dezake, Txillardegiren "Hizkuntz lurraldetasuna Belgikan" izeneko artikuluan (1990eko azaroa).*

---

*In this issue we have an interview with two Flemish sociolinguistics, both of them old friends of the Basque Country: Kas Deprez, a teacher of Sociolinguistics at the universities of Amberes and Lovaine, and Armel Wynants who is a teacher at the University of Lieja and the Linguistic Commissioner at Voeren-Fourons. We have talked about different aspects of the linguistic problem in the Belgian State: development of the process of normalization of the Flemish Language, social attitudes with regard to the different languages, behaviours on territoriality and bilingualism, censures, linguistic frontiers, the special status of the capital city, legal situation in the field of labour, the different changes of the Belgian Constitution, the situation in the field of teaching, etc; an interesting view, of course, for the process of normalization that we are living in the Basque Country. The reader can find more information on the Belgian affair in the essay "Hizkuntz lurraldetasuna Belgikan" (Language Territoriality en Belgium) by Txillardegi, published in the second issue 2 of this journal of sociolinguistics, in november, 1990.*

**GALDERA:** Zergatik eten zen 1947an Belgikan hizkuntz errolda? Izan ere, flandriarren<sup>1</sup> inposaketa gisa hartua izan zen etetze hori: "nola liteke errea-litatea ezagutu nahi ez izatea"?

**KAS DEPREZ:** XIX. mendearen bukaera eta mende honen hasiera aldera hasi ziren flandriarrak komunitate gisa pentsatzen eta erreibindikaten. Nahikoa homogeenoa den lurralde batean dagoen komunitateak, lurralde ezaugarritan pentsatzen hastea badauka. Komunitateak, herriak, bere lurraldea du. 30eko hamarkadan valoniarrek<sup>2</sup> lurraldetasun printzipioa onartu zuten, beti ere muga ez finkatzeko baldintzapean, frankofoniaren zabalkuntza ez oztopatzearen; Brusselaz pentsatuz batipat.

Udallerrietako hizkuntz statusa zentsu baten emaitzetan oinarritu zen. Galdetutakoen %30ak baino gehiagok beste hizkuntza hitz egiten zutela esaten bazuten erraztasunak eskaini behar zitzaizkien; nolabaiteko status elebiduna behar zen kasu horretan. %50arekin lehentasunezko hizkuntza aldatu egin behar zen eta %70arekin hizkuntzaz aldatu behar zen guztiz. Horrela bada, aurreratzeko aukera zeukaten valoniarrek, gehien bat Brussela inguruetan.

Une hartan hizkuntz errolda erreferendum bilakatu zen. Jendeari ez diozu gehiago zer hizkuntza hitz egiten duen galdetzen, nolako hizkuntz-statusa nahi duen baizik. Hortaz, hizkuntz errolda akabatu da, bere balio zientifiko guztia galdu du. Ez da iada estatistika bat, erreferenduma da. Are gehiago: gerraz

(1) Flandriarrak: hizkuntzatzat nederlandera daukaten belgiarrak.

(2) Valoniarrek: hizkuntza frantziarreko belgiarrak.

**KAS DEPREZ:** Hizkuntz muga aldatzeko aukera errolda egiten den bakoitzean baldin badaukazu, hamar urtero eztabaida eta tirabirak izango dituzu. Oso aukera okerra iruditzen zait niri hori. Ez da mundu guztian hamar urtero bere mugak zalantzan jartzen dituen estaturik. Bake linguistikoa nahi baduzu, mugak ezarri behar dira.

geroztik, 1947an, mugimendu flandriatarraren zati handi baten naziekiko lankidetzaren ondorioz, flandriar asko zegoen, batipat Brusselan, zioena: "nederlandera bukatu da; orain ni ez naiz flandriarra, nik frantziarra hitz egiten dut".

Horrela bada azken errolda 1947an burutu zen eta gobernuak ez zuen 1954 arte argitaratzerik izan flandriar askok "ez da zuzena, ez du errealitatea isladatzen" esaten zuelako. Azkenean, 1954ean argitaratu zen eta berriro ere, Flandriak Brussela inguruko hiru herri galdu zituen. "Horrela ezin da jarraitu" esan zen, eta azkenean, 1961etik aurrera ez da errolda gehiago egin. Hizkuntz erroldak, beraz, garrantzi politikoa zuen. Estatistikari garrantzi politikoa ematen hasten zaren unetik, bereak egin du, akabatu da.

Hizkuntz muga aldatzeko aukera errolda egiten den bakoitzean, hots, 10 urtez behin baldin badaukazu, horrek esan nahi du herri bateko administrazio osorako hizkuntza guztiz alda daitekeela hamar

urte igaro ondoren. Beraz, hamar urtero eztabaida eta tirabirak izango dituzu. Oso aukera okerra iruditzen zait niri hori.

**ARMEL WYNANTS:** Gerra aurreko azken erroldak, ondo oroitzen banaiz, % 50 flandriar zegoela zioen. Gerra ostean, % 10 besterik ez, eta ez zen benetan hainbeste aldaketarik egon. Erroldaren aurkakoek argi frogatu zuten 1947an 1930eko jende berbera zela % 90ean, baina erroldak zioen flandriarrak % 50etik %10era igaro zirela; ezinezkoa beraz.

**G:** Ez al zaizue iruditzen aipatu duzuen erabakia antidemokratikoa dela, hau da: “hizkuntzan eta gizartean gertatzen dena gertatzen dela, hizkuntz muga hor dago”?

**KAS DEPREZ:** Zaude pitin bat. Belgikan muga linguistikoa alda daiteke oraindik, Konstituzioak aukera hori ematen du. Talde linguistikoko bakoitzean gehiengo arrunta behar da eta guztira bi herenen gehiengoa. Hori lortzen baduzu, alda dezakezu. Horixe da irtenbidea belgiar erara: alda dezakezu baina ezin dezakezu alda, ia ezinezkoa baita gehiengo horiek lortzea.

Lurraldetasunaren printzipioa onartzen duzun unetik, muga behar da. Ezin dezakezu mugarik gabeko lurralderik izan. Ez da mundu guztian hamar urtero bere

---

**ARMEL WYNANTS:**  
**Erroldaren aurkakoek argi frogatu zuten 1947an 1930eko jende berbera zela % 90ean, baina erroldak zioen flandriarrak % 50etik % 10era igaro zirela; ezinezkoa beraz.**

---

mugak zalantzan jartzen dituen estaturik. Bake linguistikoa nahi baduzu, mugak ezarri behar dira. Zientifikoa, objektiboa, estatistikoa den printzipioari ondorio politikoak aitortzea izan zen gure errua 1930eko hamarkadan. Estatistikari garrantzi politikoak ematen diozun unetik, jendea aldatu egiten da, batipat gerra ostean. Testuinguru politikoa kontutan izan behar da.

**G:** **Brusselako bost barruti nederlanderako eskualdeak ziren eta orain gehiengoa frankofonoa da horietan. Frankofonoei erraztasunak eman behar zaizkien komunitate flandriarrak dira. Hau da, soziologikoki aldatu diren komunitateak dira non errealitatearekin bat ez datorren legea aplikatzen den. Komunitate hauek erregimena aldatu nahi dute, egungo errealitateari egokitu, baina ezin dute.**

**ARMEL WYNANTS:** Autodeterminazioaren printzipio kontua da. Gauza ezberdinetaz hitz egiten da: hizkuntzaren erabilpenaz eta lurraldetasun nazionalaz. Bi gauza izan daitezke. Hizkuntza inondik inora elementu eratzailera ez den lurralde nazionala imajina daiteke. Oraindik elebidun diren nazioak, edo estatuak behintzat, badaude, Suiza esate baterako. Hortaz, hizkuntzaren aukera egin ahal izateko autodeterminazio eskubidea badagoela esan daiteke asko jota, baina ez, adibidez, bereizpen politikoa egiteko eskubidea.

**KAS DEPREZ:** Oreka behar da. Nire ustez, lurraldetasuna onartuz gero, lurralde horretara bizitzera datorrena etorkina da eta bertako errealitateari egokitu beharko du. Frantziara bizitzera joaten bazara, dena frantzieraz egingo duzu. Zure etxean, noski, nahi duzun hizkuntza hitz egingo duzu, euskara, gaztelera, txinera, nahi duzuna. Baina

**KAS DEPREZ: Brusselan, historiaren printzipioa indarrean jartzen badugu, historikoki Brussela flandriarra da, baina, 1963ko errealitatean oinarritu gara eta elebidun izendatuta dago.**

Frantzian dena frantzieraz egiten da. Bretoientzat, autoktonoak direnentzat, eskubideak egon daitezkeela onar dezakegu baina Frantzian ez da hizkuntz eskubiderik egongo txinatarren-tzat.

Etorkin batek eta, beraz, Brussela uzten duen eta Brussela ingurura, erraztasunak eskaintzen dituen komunitatera, joaten den frankofonoak, erraztasunak ditu eta ez dago gaizki: bere haurrak bere hizkuntzan iharduten duen lehen mailako eskolara bidal ditzake, dokumentu guztiak bere hizkuntzan lor ditzake, etabar, baina, nolabait esatearren, beste Herri batean kokatu da.

Fourons/Voeren<sup>3</sup>-ekoa beste gauza bat da, noski. Muga linguistikoa finkatu egin zen. Baina Fourons/Voeren-en hankasartu dela esan daiteke. 1963an egindako zerbait da. Hobe izango zen lurralde elebiduntzat hartua izan balitz, han ez baitago etorkinik.

**ARMEL WYNANTS:** Zaila da esatea egokitu egin behar dutela. Bertako jendea

(3) Voeren/Fourons: sei herriskak osatzen duten eskualdea. Historikoki Flandria izana, gaur egun bertako biztanleak frantzieraz mintzo dira batez ere, 5.000 nederlanderadun salbu. Hala ere, bertako hizkuntza ofizial bakarra nederlandera da.

da, betidanik han egon dena eta piskanaka hizkuntza aldatzen hasi dena. Inmigrazioa ez da kontutan hartzeko moduko faktorea.

**G:** Euskal Herrian badaude mende hasieran hizkuntza hitz egiten zuten lurraldeak baina galdu egin dutenak. Adibide zehatza ematekotan, XIX. mendean Iruñean euskara mintzatzen zen eta bada mende bat hitz egiten ez dela. Irizpide belgiarra aplika al daiteke hemen?

**KAS DEPREZ:** Guk, muga linguistikoa 1963an finkatu genuen, nire ustetan 1963ko errealitatean oinarrituz. Ez da gauza bera mende batetaz hitz egitea ala urtebetez. Brusselan, adibidez, printzipioa indarrean jartzen badugu, historikoki Brussela flandriarra da, baina, 1963ko errealitatean oinarritu gara eta elebidun izendatuta dago.

**ARMEL WYNANTS:** Historiaren argudioa erabiltzea korapilatsuago da. Zuek egoera erosoagoan zaudete, Europako lehen Herria zaretenez inork ezingo baitu esan: “bai, baina zein zegoen zuek baino lehenago?” Baina gure kasuan, pentsa ezazu. Gaur zeltiarrak etortzen

**ARMEL WYNANTS:**  
**Historiaren argudioa erabiltzea korapilatsuago da. Zuek egoera erosoagoan zaudete, Europako lehen Herria zaretenez inork ezingo baitu esan: “bai, baina zein zegoen zuek baino lehenago?” Baina bestela noraino jo atzera eta zeren arabera?**

badira esanez: “ah bai, baina zuen aurretik gu geunden hemen”. Eta erromatarrak gure lurretara etorri eta esaten hasten badira... Noraino jo atzera eta zeren arabera?

**KAS DEPREZ:** Flandrian homogeenotasunak asko erraztu ditu gauzak. Bruselan, aldiz, arazoa izugarria izan da baina, beno, ez dakit oraindik arazoa izaten jarraitzen duen. Nik uste dut Bruselak salbatzen duela Belgika. Brussela hizkuntz arazotzat hartzea bukatu egin da 1989az geroztik, Konstituzioaren hirugarren aldaketa izan dugunez geroztik. Flandriarrak, maila ofizialean, pozik direla uste dut.

**G:** Beste galdera bat egin nahi dizuegu guretzat interesa duelako. Estatu belgiarreko hizkuntz politikak orokorrean elebitasuna du helburu ala ez? Belgikan elebidun oso gutxi baitaude, gehienak Bruselan. Elebidun gutxi dago, eta horietatik gehienak Flandrian. Ez al duzue hemengo helburu berdina?

**KAS DEPREZ:** Ez, ezta gutxiagorik ere. Horretaz 1920 edo 1930eko hamarkaden hasieran eztabaidatu genuen, zer egingo genuen aztertzen ari ginenean, eta batez ere lurraldetasunaz hitz egin zen. Bi aukera genuen: bi erregio elebatar eta kapitalelebiduna ala elebitasuna Belgikako lurralde osoan. Valoniarrek izan ziren elebitasuna onartu ez zutenak. Flandriatarren aldetik, nire ustez, baziren batzuk elebitasunarekin ados zeudenak buruzagi flandriar askok ikasketak frantzieraz egin zituztelako. Beraz, elebidun ziren. Baina valoniarrek ez dute inoiz elebitasuna Belgika osoan onartu. Oraindik ere buruzagi valoniar asko, gehien bat sozialistak, nederlanderaz mintzatzeko gai ez direla esan daiteke. Flandriak, beraz, ez zuen aukeratzetik izan, valoniarrek egin baitzuten aukera: elebitasuna Belgika osoan ala bi lurralde elebatar eta

---

**KAS DEPREZ:** Bruselan, arazoa izugarria izan da baina, 1989an, Konstituzioaren hirugarren aldaketa izan dugunez geroztik Brussela hizkuntz arazotzat hartzea bukatu egin da.

---

Flandriako gutxiengo frankofonia abandonatu (beti egon baita gutxiengo frankofonia Flandrian); bigarren aukera hau egin zuten. 1930eko hamarkadan ezarri ziren azkenean transizio neurriak.

Indar erlazioa dago bi hizkuntzen artean. Frantziara hizkuntza internazionala da eta nederlanderaz ez. Eta errealitate honekin egin behar dugu aurrera. Flandriar bati oso komenigarria zaio frantziara ikastea, valoniarrei nederlanderaz ikastea berriz, askoz gutxiago. Baina aldaketa anitz egon dira ildo horretan, Flandriak Belgika ekonomikoki menderatzen duenez geroztik.

**ARMEL WYNANTS:** Nik uste dut ez dela Flandria izan valoniarrei horretaz jabetuarazi diena. Elebidun izateko arrazoia honetarako kokatu onuke: ikasketak egin dituenak eta aurrera ekin eta karrera handia egiteko asmoa duenak Bruselan beste edonon baino aukera gehiago ditu. Eta han elebitasuna da nagusi. Agian gehiago da Brussela Flandria baino. Nire ustez maila nazionalean kokatzen da gehiago, maila nazionalean etorkizuna izan nahi baduzu alegia.

**KAS DEPREZ:** Hori egiaztatu egiten da. Adibidez, orain dela gutxi telebista flandriarreko kirol programabatetan, duela urte batzuk Flandrian jokatzeko zuten bi futbolari valoniar agertu ziren. Guztia

nederlanderaz izan zen. Orain bost urte hori ezinezkoa zen. Nire ustetan nederlanderaz ondo hitzegiten duten valoniarren kopurua urtero handituz doa.

**G: Lurraldetasunarekin zerikusirik duen beste galdera bat. Gaur egun nederlanderaz egiten duen flandriar bat Liejan instalatzen bada, zein hizkuntz trataera izango du alor ezberdinetan: udalarekiko harremanak, haurren irakaskuntza,...**

**ARMEL WYNANTS:** Lurralde hori homogeneoa da. Den dena lurralde horretako hizkuntzan egin behar da. Beno, legeak adeitasunari zirrikitua uzten diola esan daiteke. Funtzionariak ahalegin bat egin nahi badu, beste hizkuntzan hitz egiteko ahalmena du noski, inork ez dio debekatuko. Baina ezin zaie funtzionariei beste hizkuntzaren ezagupenik exigitu.

Agiri ofizialak berriz, hizkuntza ofizial bakarrean, soil-soilik. Baina hitzezko harremanetan, funtzionariak beste hizkuntza ezagutzen badu eta atsegina izan nahi badu, laguntzen ahal du noski. Valoniako eskoletan dena frantzieraz egingo da. Anberes eta Lieja hirien arteko idatzizko harremanetan, adibidez, gauza berdina gertatzen da. Anberes-tik Liejara eskutitza idazten duen funtzionariak frantziara aski ezagutzen badu, frantzieraz idazterik badu. Baina Liejak ezin du inoiz horrelakorik exigitu. Beraz, berak nederlanderaz idatz dezake eta Liejak frantzieraz egingo du, hori da guztia.

**G: Honi lotuta dagoen beste galdera bat: Belgikan garai batetan, familia buruak bere haurrek Bruselako eskolan erabiliko zuten hizkuntza aukeratu ahal zuen. Zer esan nahi du horrek?**

**ARMEL WYNANTS:** 1932an lurraldetasunaren printzipioa onartu zen: Valonia frantzieradun elebakarra izango zen,

Flandes nederlanderaz bihurtu zen eta Brussela elebidun. Orduan, Bruselan aukera zegoen. Baina mugimendu flandriarrak ezetz esan zuen, flandriar guztiek beren haurrak eskola frantziarretara bidali nahi zituztelako: flandriarrei beraien haurrak eskola flandriarretara bidaltzera behartu nahi izan zitzairen. Guraso flandriarrek eskola frankofo-noetara igorri nahi zituzten haurrak berauen etorkizunaren onerako zen ustetan. Ikuskatzailea familiarengana joaten zelarik eta flandriarrez egindako galderei flandriarrez erantzuten baldin bazieten, berehala esaten zuen haurrak eskolaz aldatu behar zirela. Ez zen sekulan lortu. 1951an ezabatu zuten arau hori.

**KAS DEPREZ:** Ez bazen lortu kontrola eramatea zaila zelako izan zen, oso zaila suertatzen zelako guraso bakoitzari familian erabiltzen zuten hizkuntzaz aitorpena egiteko eskatzea. Eta gainera egiaztatu egin behar zen gero. Gurasoek gezurra esatea ekiditerik ez zegoen.

Adibidez, arau bat bazegoen zeinaren arabera gurasoek, etxea elebiduna bazen eskola aukera zezaketela zioena. Hortaz, flandriar guzti hauek etxean elebidun zirela

---

**ARMEL WYNANTS: Legeak adeitasunari zirrikitua uzten diola esan daiteke. Funtzionariak ahalegin bat egin nahi badu, beste hizkuntzan hitz egiteko ahalmena du noski, inork ez dio debekatuko. Baina ezin zaie funtzionariei beste hizkuntzaren ezagupenik exigitu.**

---

---

**KAS DEPREZ: 1930ean Flandriak ez zuen aukeraterik izan, valoniarrek egin baitzuten aukera: elebitasuna Belgika osoan ala bi lurralde elebakar eta Flandriako gutxiengo frankofonoa abandonatu; bigarren aukera hau egin zuten.**

---

esaten zuten, bi hizkuntzak hitz egiten zituztela alegia. Elebidun bat ezin duzu behartu; beraz, guztiak elebidun aitortzen ziren. Inguru nazionalista flandriarrentzat hondamena izan zen: "akabo Brusselako eskola flandriarra" zioten.

**G: Brusselako eskoletako egoeraz artikulua idatzi duzu. Nederlanderaren aldeko aurrerakadarik somatzen al da?**

**KAS DEPREZ:** 1950eko hamarkadan eskola flandriarrak ziren galtzaile nabarmenki. 1980tik aurrera aldaketak egon dira. Urtero gehituz doa eskola flandriarretako ikasle kopurua. Brusselan, nederlanderaren eragina gero eta handiagoa da, nahiz eta beraien haurrak eskola flandriarrera bidaltzen dituzten flandriarren kopurua gutxitzen jarraitzen duen. Ez dakigu oso ondo zergatik: Brusselatik kanpo dauden eskoletara bidaltzen dituztelako haurrak edo haur gutxiago dagoelako (jaiotze-indizeak beherantz egin du). Esan beharra dago era berean, han oso garrantzitsua baita, eskolaflandriarrak orohartxikiagoak direla, atseginagoak, zerbait modernoagoak eta hori guztia.

**G: Flandriarrak orain arrazistak direla entzuten da.**

**ARMEL WYNANTS:** Biztanlegoaren % 25 atzerritarra da Brusselan, gutxi gora behera, eta zati handi bat langile etorkinak dira. Gehienetan auzo berberetan finkatutako etorkinak dira. Europarrak eta ez-europarrak daude. Baina ez-europarren artean ere, turkiarrak salbu, etorkin talde guztiek frantzierarekiko halako lotura dutela ikusten da, marokiarrak barne.

Frantziara zertxobait ezagutzen duten hizkuntza da. Espainiar batek nederlanderara edo frantziara aukeratzekotan, frantziara aukeratuko du. Etorkin guzti hauek frantziara aukeratzeko dute eta beraz, berauen haurrak eskola frantziarretan topatzen ditugu. Batzuetan gainera ge-hiengo oso zabala da. Eskola batzuetan, % 85a langile etorkinen seme-alabak dira horrek dakarren ondorio guztiekin. Orduan, batzuen esanetan goi mailako klaseko frankofono batzuek ez dute beren haurrak hainbeste atzerritarrekin ibiltzea nahi eta nahiago dute flandriarren eskoletara igorri arazo gutxiago daudelako.

**KAS DEPREZ:** Badaude beren haurrak eskola flandriarrera bidaltzen dituzten turkiarrak ere, aldameneko eskola frankofonoan marokiar gehiegi daudelakoan. Atzerritar pobreen kopurua gehituz doa baina mugatua da. Baina atzerritar berriak Brusselan japoniarrak,

---

**ARMEL WYNANTS:**  
**Mugimendu flandriarrak, flandriarrei beraien haurrak eskola flandriarretara bidaltzera behartu nahi izan zien. Ez zen sekula lortu.**

---

---

**KAS DEPREZ: 1980tik aurrera Bruselan, nederlanderen eragina gero eta haundiagoa da, nahiz eta beraien haurrak eskola flandriarrera bidaltzen dituzten flandriarren kopurua gutxitzen jarraitzen du.**

---

amerikarrak dira, burokratak. Horren ondorioz, eskola internazionalak gero eta garrantzi han-diagoa hartzen ari dira Bruselan enpresa multinazionalak burokrata hauen seme-alabentzat, beren enpresek ordainduta. Baina egoera nolakoa den zehazki jakitea oso zaila da, ez dago azterketarik honetaz.

**G.: Zertan da legea Belgikan lan munduari dagokionez?**

**ARMEL WYNANTS:** 1831. urteaz geroztik Konstituzioak dio hizkuntzen erabilpena aginte publikoari eta judizialari dagokionean besterik ezin daitekeela arautu. Printzipioz, lege honek ez du aukerarik ematen arlo pribatua arautzeko, ezta enpresa pribatuen kasua ere, jakina. Baina 1970ean konstituzioari egindako aldaketa baten ondorioz, langile eta enpresarien arteko lan harremanak hala nola enpresen akta eta agiri ofizialak derrigorrez zonalde bakoitzeko hizkuntza ofizialean egin behar dira. Arau honek herritarren eskubideak zaintzea bilatzen du, baina nagusia eta langilea bat baldin badatoz beren arteko harremanak beste edozein hizkuntzatan egiteko (baita euskaraz ere! esate baterako) inork ez die galeraziko. Arlo pribatuan ez dago beraz hizkuntza jakin bat ezagutzeko inolako

obligaziorik: Flandrian nederlandera ez dakien nagusi batek ez du inolako arazorik izango bere langileekiko harremanetarako eta paper ofizialak betetzeko nederlandera dakien arduradun bat jartzen baldin badu.

Enpresa publikoek berriz, administrazio publikoaren hizkuntz tratamendua dute: hizkuntzaren aldetik homogeenak diren lurraldeetan ez daude elebidun funtzionatzaera beharurik, baina lurralde elebidunetan derrigor erabili behar dituzte hizkuntza ofizial guztiak. Zenbait zerbitzu publikotan oso zehatzak dira hizkuntz eskakizunak: lurralde elebaker batean ardura jakin bat bete ahal izateko, hizkuntza bereko unibertsitate batek emandako titulazioa behar da. Nire kasua esate baterako: nederlanderazko irakasle naizen arren, nederlandera badakidala frogatzeko azterketa gairatu behar izan nuen Voeren-Fourons-eko hizkuntz komisari izan ahal izateko; izan ere, nederlanderazko irakasle naizela frogatzen duten nire unibertsitateko agiriez ez zuten balio, unibertsitate frankofono batean atera nituelako!

**G: Beste galdera bat, politiko xamarra oraingoan. Belgika federal batetaz hitzegiten da gero eta gehiago. Zein da**

---

**ARMEL WYNANTS: 1970ean konstituzioari egindako aldaketa baten ondorioz, langile eta enpresarien arteko lan harremanak hala nola enpresen akta eta agiri ofizialak derrigorrez zonalde bakoitzeko hizkuntza ofizialean egin behar dira.**

---



**Belgika berriari buruzko flandriarren jarrera?**

**KAS DEPREZ:** Alderdi ez-independen-tista guztiak federalizazioa areagotu behar dela diote banaketa ekiditeko eta akordio batetara heldu dira bizkor. Federalizatu behar da separatismoa ekiditeko. Zergatik ez da separatismoa nahi? Arrazoi ezberdinegatik: flandriarrek, gehiengo zabale-nak, ez dute separatismoa nahi ez dutelako Flandria independente bat nahi non eskuin muturrak indar gehiegi hartuko lukeen.

**G: Beraz, flandriarrak eskuindarrak dira benetan. Horren beldur al zarete?**

**KAS DEPREZ:** Esan beharra dago Anberesen % 25a lortu dutela. Horrela jarraitzen badute laister gehiengo eskuratuko dute. Imajinatzen duzu hori?

**ARMEL WYNANTS:** Lehen mundu gerran, 1917an, aktibistek Flandrian independentzia aldarrikatu zuten. Jende hori, gerra ostean, zigortua izan zen. Geroztik jende hori anti-belga bihurtu da. Anti-belga horiek, 1930ean, faxista egin ziren eta naziekin kolaboratu zuten bigarren gerran. Orduan, lehen gerra ostean baino zigortuagoak izan ziren. Hildakoak izan ziren, 264 uste dut. Hankasartze latzak ere egon ziren. Lehen gerrakoak epaituak izan ziren, eta bigarrenekoekin berriz askoz zorrotzagoak izan ziren. Agian kolaborazio hain larria ez zutenak hil egin zituzten. Gerra ondoren, herriak mendekua nahi zuen.

Ingurune horietan Belgikarekiko gorrotoa dago, nire ustez, euskaldunek Espainiarekiko dutenaren antzekoa nolabait. Antzekoa diot, zeren euskaldunen gorrotoa Francoren diktaturaren aurkakoa zen eta flandriar hauena estatu liberal baten aurkakoa da. Hortaz, jende honek ez du Belgika onartzen, ez dute frankofonia

---

**ARMEL WYNANTS:**  
**Brusselan, proportzioen erlazioa Belgika osoarenaren alderantzizkoa da. Valoniarrek beren egoera Belgika mailan defendatzeko zerbait eskatzen dutenean, flandriarrek berdina egiten dute Brusselan. Eta hauxe da konpromezuetara heltzea ahalbideratzen duena.**

---

onartzen, frankofonia liberala delako eta katolikoen aurkakoa izan daitekeelako.

Abortoa liberalizatzen duen lege berriaren zeharo aurka jarri izana da eskuinaren arrakasta argitzen duen beste faktore bat. Beraientzat, abortoa ahalbideratzen duen legea minorien aurkako benetazko traizioa da. Eta berriro ere, Belgika da arduradun.

**KAS DEPREZ:** Indar demokratikoa behar dela esaten da, indar demokratikoa egotea Flandrian zein Valonian, eta horrela batera ihardungo dugu. Nire ustez, alde flandriarlean esaten da gehien bat hori. Valonian berriz, arazo ekonomikoak daude eta, neurri haundian, dirua Flandriatik dator. Asko sinplifikatuz, valoniarrek federalizazio hau onartu dutela esan genezake ekonomi elkartasunak segi dezan baldintzapean. Orduan, dirua heltzen jarraitzen badu, flandriarrek nahi dutena lortzen dutela egiaztatzen dugu. Noski, izugarritzko eragina duen elementu politikoa dago hor: Brussela. Flandria eta Valonia bereizten badira, zer gertatuko litzateke Brusse-larekin? % 80ko gehiengo frankofonoa du Brusselak; aukeraketa ez litzateke flandriarren

**KAS DEPREZ: Flandria eta Valonia bereizten badira, zer gertatuko litzateke Brusselarekin? % 80ko gehiengo frankofonoa du Brusselak; aukeraketa ez litzateke flandriarren aldekoa izango. Beraz, Brussela da Belgika salbatzen duena; ez legeak, ez armadak, ez finantzak, Brussela baizik.**

aldekoa izango. Horrek esan nahiko luke politika eta kultur mailako presentzia flandriarraren amaiera izango litzatekeela Brusselan. Beraz, Brussela da Belgika salbatzen duena; ez legeak, ez armadak, ez finantzak, Brussela baizik.

**G: Hiriburu elebiduna izaten jarrai-tuko du Brusselak?**

**KAS DEPREZ:** Bai. Bizpahiru urtez geroztik gobernu brusseldarra dugu, hau da, gobernu-kontseilu bat dago eta parlamentubrusseldarra ere, non flandriarrek 11 ordezkari dituzten. Hamaika hauek bozkatzeko eskubidea duten belgiarren %15a suposatzen dute. Bozkatzeko eskubidea ez duten %28 atzerritar daude oraindik, hauen gehiengo zabal batek

frantzieraz mintzatzen duelarik. Beraz, Brusselako biztanle guztiei botu eskubidea emango balitzaie, flandriarrek hautatuen %10a baino gutxiago lortuko lukete seguraski. Baina esan beharra dago, gobernu brusseldarra osatzen duten 5 ministroetatik eta 3 estatu idazkarietatik 2 ministrok eta estatuko idazkari batek nahitaez flandriar izan behar dutela.

**G: Ministro jakin bat da edo edozein ministro izan daiteke? Negoziatu beharra dago?**

**KAS DEPREZ:** Bere unean negoziatzen da baina ezin da ahaztu kontsentsua beharrezkoa dela. Brusselako flandriarrek mendebaldeko hizkuntz gutxiengorik babestuen dira eta flandriarrek honetaz jabetzen dira. Erne daude, noski. Kontseiluko flandriarren gehiengoa proposamen batekin ados ez badago, ezin dute ezta eztabaidatu ere egin.

**ARMEL WYNANTS:** Bere 11 hautatuetatik seik ados ez daudela badiote, aparteko beto gisakoa daukate. Benetan ezezkkoa diotenean, gure taldeko interesa arriskuan dago. Beraz, aurka egiteko aukera dute, horretarako prozedura aurrikusia baitago. Hau aldebitakoa da noski, zeren valoniarrek, beren aldetik, antzeko garantia eskatzen dute, Belgika mailan beraiek direlako gutxiengoa (%60 eta %40). Hau da, azken finean, salbatzen gaituena. Brusselan, non Belgikako biztanlegoaren %10a bizitzen den, flandriar eta valoniarren arteko proportzioen erlazioa Belgika osoarenaren alderantzizkoa da. Valonia-rrek beren egoera Belgika mailan defen-datzeko zerbait eskatzen dutenean, flandriarrek berdina egiten dute Brusselan. Eta hauxe da konpromezuetara heltzea ahalbideratzen duena.

**Jose Luis Alvarez Enparantza**  
**"Txillardegi"**

Itzultzailea: Arantxa Manterola